

VII. ERANSKINA:

GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:

NANa/IFZa:

Honako hau ordezkatzuz: IFKa:
.....

Helbidea:

Adierazpen hau egiten dut, dirulaguntza honen onuradun naizen aldetik:

.....

Maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoak (2013ko 187. NAO, irailaren 27koa), Nafarroako Aurrekontu Orokorraren kargurako dirulaguntzen onuradunen gardentasun-betebeharrak arautzen ditu.

Aipatu lege horren 3.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, entitate pribatuek gardentasun-betebeharrak izanen dituzte gutxienez ere bi inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea urtebetean.
- b) Jasotako laguntzen edo dirulaguntzen zenbatekoa erakundearen urteko diru-sarreraren % 20 edo gehiago izatea, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurua iristen bada.

Bat etorritz aipatu foru-legearen 3. eta 12.4 artikuluetan xedatutakoarekin, honako hau **ADIERAZTEN DUT**:

☐ **Ez dudala gardentasun-betebeharrik** (ez direlako betetzen maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak).

☐k (adierazi organo emailea) emandako dirulaguntza dela-eta, informazio hori aurkeztu dudala; beraz, **ez da berriz aurkeztu behar**, ez baitira aldatu orduan emandako datuak.

☐ **Gardentasun-betebeharra dudala** eta, horrenbestez, aipatu foru-legearen 12. artikuluan ezarritako informazioa ematen dut adierazpen honen eranskinean, eta entitatearen urteko azken kontuen kopia eransten dut.

.....(e)n, 20.....(e)koaren
.....(e)(a)n.

Sinatzailea:

Kargua:

GARDENTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENA

Dirulaguntza:

.....

Entitate onuraduna:

.....

IFKa:

Osatu taula informazio honekin (5/2018 Foru Legearen 12. artikulua):

- Entitatearen gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera.
- Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda. Kargudun bakoitzaren dedikazio-araubidea.
- Entitateak kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako konpentsazio ekonomikoak, kontzeptuen arabera banakatuak, eta urteko kontuak, jendaurrean erakutsi ahal izateko.

Organoa	Kargua	Dedikazio-araubidea	Ordainsaria (euroak)	Ordainsariaren kontzeptua

.....(e)n, 20.....(e)koaren
(e)(a)n.

Izen-deiturak: NANA:

Kargua:

ADIERAZPENAREN EGILEARENTZAKO ARGIBIDE JAKINGARRIAK:

- Adierazpen hau eta kasuan-kasuan eranstean den informazioa **modu telematikoan** aurkeztuko dira Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, dirulaguntza kudeatzen duen administrazio-unitateari zuzendurik.
- Adierazpen hau **hilabeteko** epean igorri beharko da, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten denetik. Eginbehar hori bete ezean, ez da ordainduko onetsitako dirulaguntza.
- Entitate onuradunak ematen duen informazioa **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atariko webgunean** argitaratuko da. Informazio hori urtebetez egonen da ikusgai, argitaratzen denetik. Epe hori iraganik, hura argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du. Hala egin ezean, entitate onuradunak kentzeko eskatzen ahalko du.